# ESKOLA KIROLA

## 2020/2021 DIRU-LAGUNTZARAKO ESKABIDERAKO ESKULIBURUA


| | |
|---|---|
| 0. SARRERA ETA IDENTIFIKAZIOA | 2 |
| a) Erakundearen ordezkariaren ziurtagiria | 2 |
| b) NAN elektronikoa edo baliokidea | 4 |
| 1. ESKABIDEAREN DATUAK | 3 |
| a) Datu orokorrak | 3-5 |
| b) Banku-helbideratzea | 6 |
| c) Erakundea sarrerak | 7 |
| d) Baimenak eta aitorpenak | 8 |
| 2. ERANTSI DOKUMENTAZIOA | 9 |
| 3. BIDALKETA ETA SINADURA | 10 |
| 4. ONDOREN ERANTSI DOKUMENTAZIOA | 11 |

## 0. SARRERA ETA IDENTIFIKAZIOA

Egoitzara diru-laguntza eskatzera doan erakundearen ordezkariaren ziurtagiriaren bidez sartu bazarete, pantaila honetan "........ren izenean" aukera hautatu beharko duzue eta onartzea sakatu.



# 1. Eskabidearen datuak

Hurrengo pantaila agertuko zaizue, eta bertan erakundearen IFZ eta izena sartuko dira, zuzen-zuzenean, "Interesdunaren datuak"-en laukietan. "Harremanetarako datuak"-en laukietan, eskatzen diren datuak sartu behar dira. Ondoren, hurrengo botoia sakatu:



Egoitzara diru-laguntza eskatzera doan erakundearen ordezkari legez diharduen herritar baten NAN elektroniko edo ziurtagiriaren bidez sartu bazarete, pantaila honetan “Hirugarren pertsonen edo ordezkarien ordezkari legez” aukera hautatu beharko duzue eta ”INTERESDUNAREN DATUAK”en dagokion laukian DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DUEN ERAKUNDEAren (eta ordezkatzen ari zareten) IFZ jarri beharko da. Izenaren / Sozietatearen izenaren datuak automatikoki agertuko dira.



Ondoren pantaila hau agertuko da, eta bertan automatikoko beteko dira "Interesdunaren datuak" atalari (gogora ezazue diru-laguntza eskatzen duen erakundearen datuak izan behar direla) eta "Ordezkariaren datuak" atalari dagozkion datuak, eta bakarrik bete beharko dituzue "Harremanetarako datuak" atalean eskatzen zaizkizuen datuak. Halaber, erakunde eskatzailearen izenean diharduzuen ordezkaritza egiaztatzen duen agiria ere erantsi beharko duzue. Behin betetakoan, "hurrengoa" botoia sakatu behar duzue.



Datu orokorrak bete ondoren, banku-helbideratzeari buruzko datuen pantailarekin jarraituko dugu. IBAN laukian, diru-laguntzaren ordainketa non egin behar zaizuen, erakunde eskatzailearen izenean dagoen kontuaren zenbakia, adierazi beharko duzue. "Banku-helbideratzearen fitxa" bakarrik erantsi beharko da aurretik erantsi ez den kasuetan (erakundeak aurretik kontu-zenbaki horretan BFAren diru-laguntzaren bat jaso badu, ez duzue bete behar). Diru-laguntzarako eskabidea egiteko orduan, banku-erakundeak fitxa hori bete badizue, hari erantsi ahal izango diozue "2. Erantsi dokumentazioa" fitxan.

Ez baduzue, berriz, inprimatu, bete eta kontua duzuen banku-erakundera eraman dezakezue, bete eta sina dezan. Fitxa bete ondoren, berriro egoitza elektronikoan sartu beharko zarete eta hartan erantsi, eskuliburu honen 10. orrialdean azaltzen den moduan.



Banku-helbideratzeari buruzko datuak bete ondoren, “Sarrera-erakundea” pantailan sartuko gara, eta bertan erakundearentzat aurreikusitako urteko diru-sarreren kopuru osoa jarri beharko da. Ondoren, hurrengo botoia sakatu:



“Baimena eta aitorpenak” izenburuko hurrengo pantailan aitorpen hauek irakurri eta klikatu beharko dituzue:



## 2. Erantsi dokumentazioa

Ondoren "Erantsi dokumentazioa" fitxara joango gara. Adierazten diren dokumentuak ez dira nahitaezkoak eta, aurretik aurkeztu ez badira, kasu hauetan sartu ahal izango dira:

a) % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna dela-eta diru-laguntza handiagoa jaso dezaketen teknikari eta jokalarien kasuan.

d) Kudeaketa integralaren hobekuntzarekin lotuta dauden erakunde ofizialek emandako ziurtagiriak (bikaintasunarekiko konpromisoaren diploma ez badira soilik) dituzten erakundeak.

c) Banku-helbideratzearen fitxa bakarrik erantsi beharko da aurretik erantsi ez den kasuetan (erakundeak aurretik kontu-zenbaki horretan BFAren diru-laguntzaren bat jaso badu, ez duzue bete behar).

1 Eskabidearen datuak | 2 Erantsi dokumentazioa | 3 Bidalketa

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

| Dokumentua | Erantsi |
|---|---|
| desgaitasun-graduaren egiaztatzeko agiria | |
| Kudeaketa integralaren hobekuntzako ziurtagiria - (soilik ez badira bikaintasunarekiko konpromisoarenak) | |

# 3. Bidalketa eta sinadura.

Azkenean, “bidalketa eta sinadura” fitxan diru-laguntzarako eskabidearen datu guztiak jasotzen dituen laburpena agertuko da. Behin datu horiek zuzenak direla egiaztatu eta gero, “sinatu” botoia sakatu eta berriz sartu zuen pasahitza. Dena behar bezala joan bada, pdf fitxategi bat eskuratuko duzue, dagokion erregistro-zenbakiarekin.


1473 - Eskola kiroleko programa eta HEZIKI: diru laguntza.

1473 Programa de Deporte Escolar y HEZIKI: subvenciones.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ESKABIDEAREN HASIERA
INICIO SOLICITUD

**Datu eskaerak / Datos solicitud**

Datu orokorrak / Datos generales

Interesdunaren datuak / Datos de la persona interesada

| IFZ / NIF | Izen-abizenak edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social |
| --- | --- |
| | NOMBREINTERESADO APELLIDO1INTERESADO APELLIDO2INTERESADO |

# 4. Diru-laguntzarako eskabidearen ondoren erantsi dokumentazioa

Diru-laguntzarako eskabidearekin batera aurkez daitezkeen agirietako bat erantsi ezin izan baduzue (adibidez: ordezkaritzaren egiaztapena, banka-helbideratzearen fitxa...), ondoren erantsi ahal izango duzue. Horretarako, “2020-2021 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako foru diru-laguntzak” deritzon prozeduran sartu beharko zarete, egoitza elektronikoan: (https://www.ebizkaia.eus/es/inicio).

